

Emakume baserritarrak babesten dituzten legeen azterketa

PERSPEKTIBA FEMINISTA ETA BASERRITARRA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAIA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



EMAKUME
NEKAZARIEKIN
BISTATUTIA

ESTATUTO
DE LAS MUJERES
AGRICULTORAS



Aurkibidea

01 Sarrera	4
02 Baserritarren Eskubideen Aldarrikapena	5
Azterketa juridikoa	5
Azterketa baserritarra eta feminista	6
03 35/2011 Legea, Espainiako estatukoa, Titulartasun Partekatuari buruzkoa	11
Azterketa juridikoa	11
TITULARTASUN PARTEKATUKO ENTITATEAREN ESKAKIZUNAK (TPE)	11
TITULARTASUN PARTEKATUKO ENTITATEAREN ARAUBIDEA	11
TITULARTASUN PARTEKATUKO ENTITATEAREN AMAIERA	12
KONPENTSAZIO-PENTSIONA	12
Azterketa baserritarra eta feminista	13
AHULTASUNAK	13
ALDERDI POSITIBOAK	15
LEGEAK HONETAN LAGUN DEZAKE	16
LEGEA HOBETZEKO ETA SUSTATZEKO GOMENDIO OROKORRAK	16
ONDORIOAK	17
04 Emakume Nekazarien Estatutua	19
Azterketa juridikoa	19
APLIKAZIO-EREMUA	19
TITULARTASUNA ETA TITULARTASUN PARTEKATUA	19
ESKUBIDE SOZIALAK	24
Azterketa baserritarra eta feminista	26
BENETAKO APLIKAZIOARI BURUZ	27
LEGEAREN PUNTURIK AHULENAK	29
ESTATUTUA GARATZEKO URRATS PRAKTIKOAK	30

Koordinazioa eta berrikuspena **EHNE-Bizkaia**

Ikuspegi juridikoa **Jokin Txapartegi**

Ikuspegi feminista eta baserritarra **Adelaida González, Belén Ramiro, Maite Arístegi eta Alazne Itxauspe**

Itzulpena **Iñigo Gallastegi**

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa **Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL (Ibegrafik)** eta **Baserripress SL**

Euskal Herria 2023ko iraila

Informazio gehiago webgunean.

<https://www.ehnebizkaia.eus> Argitalpena online doan deskargatzeko.

Lan hau Creative Commons lizentziapean dago. Aitorpena (by):

Egiletza aipatzen den guztietan, obraren edozein ustiapen baimentzen da, helburu komertzial bat barne, baita obra eratorriak sortzea ere, eta horiek banatzea ere baimenduta dago, inolako murrizketarik gabe.

Finantzatzailea:

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



EMAKUME
NEKAZARIEN
ESTATUTUA

INSTITUTO
DE LAS MUJERES
AGRICULTORAS



BIZKAIA
ehne
Euskal Herria
nekazarien elkartasuna



01 Sarrera

Lan honen bitartez, emakume baserritarrak aintzatetsiak eta ikusiak izateko eta beren eskubide indibidual zein kolektiboak aldarrikatzeko borrokan egindako aurrerabidea ezagutzera eman nahi dugu. Lege esparruan aurrera egin dugu, baina oraindik asko dago egiteko, lege horiek garatzeari eta abian jartzeari dagokionez. Gainera, arlo horretako legeak bultzatu dituzten aldarrikapenen oinarrian aurkitzen diren gizarte eraldaketak garatzearen aldeko benetako apustu politikoa lortu behar dugu.

Lan honetan, beraz, emakume baserritarren bizitzan eragiten duten hiru lege eta lege-esparru aztertuko ditugu. Honako hau, beraz, informazioa zabaltzeko eta prozesu horiek ikuspegi feminista eta baserritar batetik aztertzeko entsegu da. Agiri horien azterketan, Etxaldeko Emakumeak taldeak 2018an egindako materiala eguneratu nahi dugu. EHNE-Bizkaiako emakumeek eremu horretan ere parte hartzen dute.

Hasteko, NBEk 2018an onartutako Baserritarren eta Landa Eremuetan lan egiten duten Pertsonen Eskubideen Aldarrikapenaren azken bertsioa aztertuko dugu. Horren aurrerapausoak eta ekarpenak aztertuko ditugu, eta hura Europako gaur egungo egoeran aplikatzeko aukerak landuko ditugu. Gainera, aldarrikapen horrek emakume baserritarren eskubideen defentsaren arloan izandako aplika-

zioaren azterketa kritikoa egingo dugu, eta testuaren aurreko bertsioetatik geratu diren zenbait huts ere ikusiko ditugu.

Bigarrenik, Espainiako Estatuak onartutako Titulartasun partekatuari buruzko Legeaz arituko gara, eta Legeak eskaintzen dituen aukerak eta hamabi urteko ibilbide baten ostean erakutsi dituen muga praktikoak aztertuko ditugu.

Azkenik, Eusko Jaurilaritzaren Emakume Nekazarien Estatutuari buruz hitz egingo dugu. Lege esparru horrek, bada, ate asko zabaltzen ditu, baina hura gehiago zabaldu eta planen eta aurrekontuen bitartez zehaztu beharra dago.

EHNE-Bizkaiatik egin eta koordinatu dugun lan honetan, Jokin Txapartegi abokatuaren kolaborazioak berreskuratzen ditugu. Hark bigarren eta hirugarren agirien azterketa juridikoa egin du. Halaber, La Via Campesinako zenbait aktibista feministak ere testuan lagundu dute, hala nola Belén Ramirok (CERES erakundeko langilea eta Titulartasun partekatuko Legearen ondorioei buruzko txosten baten egilea), Maite Aristegik (Etxaldeko kidea eta Emakume Baserritarraren Estatutuaren lehen proposamenen partaidea) eta Alazne Intxauspek (EHNE-Bizkaiako zuzendaritza batzordeko eta Etxaldeko kidea).



02 Baserritarren Eskubideen Aldarrikapena



Nazio Batuen Batzar Nagusiak Baserritarren eta Landa Eremuetan lan egiten duten Pertsonen Eskubideen Aldarrikapena (UNDROP, ingelesezko siglen arabera) onartu zuen 2018ko abenduaren 17an¹.

Duela gutxi, 2023ko urrian, Boliviako Estatu plurinazionalak UNDROP aplikatzen jarraitzeko helburua zuen ebazpena onartzea proposatu zuen. Herralde gehienek NBERen Lantalde batek bideratutako prozedura berezi bat sortzearen alde bozkatu zuten. Hala Lantaldea funtsezkoa izango da UNDROPen aplikazioa bideratzeko, praktika hoberenak eta ikaspenak identifikatzeko eta sustatzeko, eta lankidetzara sustatzera eta helburuak

lortzera bideratutako gaikuntza teknikoak sortzeko.

Zenbait urtez, nazioarteko tresna bat edukitzearen garrantziari buruzko barne-eztabaida egon zen La Vía Campesinan (LVC); eta, azkenik, 2004an, Sao Pauloko IV. Biltzarrean, tresna hori sortzea onartu zen. Horren lehenengo bertsio bat Maputoko V. Biltzarrean berretsi zen, 2008an. NBERen Aldarrikapena, bada, proposamen horretatik sortu zen, LVCK eta erakunde adiskideek 18 urtez borrokatu eta gero.

Beraz, Aldarrikapena tresna estrategikoa da landa-eremuko erakundeen, milioika baserritarren eta landa-eremuetan lan egiten duten beste pertsona batzuen borroka eta proposamenak indartzeko; izan ere, horien bizitzak eta bizibideak lurraren, basoen, ibaien eta ozeanoen menpe daude. Gainera, jurisprudentzia ezartzen du eta nazioarteko lege etorkizun bat sortzen du mundua elikatzen duten horientzat onuragarriak diren legeak eta maila instituzional guztietako politika publikoak orientatzeko.

► Azterketa juridikoa

Aldarrikapenak esparru globala eskaintzen die legeei eta nazio-mailako politikari, honako helburu hauekin²:

- Nekazarien eskubideak hobeto babestea eta landa-eremuetako bizibideak hobetzea;
- Elikadura burujabetza, klima-aldaketaren aurkako borroka eta bioaniztasunaren kontserbazioa indartzea;
- Benetako nekazaritza-erreforma egitea eta komunitate nekazariak lurren metaketaren aurrean babestea;
- Nekazariak haziak gordetzeko, erabiltzeko, trukatzeko eta saltzeko eskubidea izan dezaten lortzea;
- Nekazariarentzat prezio duinak eta landa-eremuko langileentzat bidezko lan-estandarrak bermatzea;
- Emakumeen eta nekazari gazteen eskubideak aintzat hartzea, eta kasta, maila, arraza eta etnia guztietako pertsonen justizia soziala eskaintzea, inolako diskriminaziorik gabe.

Beraz, Aldarrikapenak landa-eremuko biztanleen eskubideen lehentasuna berresten du, eta Nazio Batuetako Estatu Kideei boterea ematen die eta baserritarren eta landa-eremuetan lan egiten duten pertsonen eskubideak babesteko eta horietan aurrera egiteko duten obligazioa gogorarazten die.

Aldarrikapen loteslea ez bada ere, agintariek eta instituzioek hura aplikatzeko obligazio moral eta politikoa dute. Beraz, LVCK proposatutakoa garrantzitsua da; alegia, hura tokiko herriak babesteko nazioarteko tresna juridiko gisa erabiltzea.

¹ <https://viacampesina.org/wp-content/uploads/2020/04/UNDROP-Book-of-Illustrations-I-ES-I-Web.pdf>, <https://www.eurovia.org/wp-content/uploads/2019/10/DECLARACION-FINAL-ESPANOL-COMPLETA.pdf>

² <https://www.youtube.com/watch?v=79iv4bFNZ50&t=3s>





Badaude Aldarrikapena eragin-prozesuetan eta prozesu juridikoetan erabili dituzten esperientzia arrakastatsua. Esate baterako, Kenian, auzitegi nagusiak GEOen debekua mantentzea lortu zuen Keniako nekazarien Ligak (KPL), eta, horretarako, UNDROP erabili zuten debekua kentzearen aurrean jarritako inpugnazioan. Indonesian, bestalde, Indonesiako Nekazarien Batasunak (SPI) lurraren gaineko giza eskubideen politika nazionalaren oinarri gisa ezarri zuen Aldarrikapena, eta nekazarien eskubideen urraketei aurre egiteko kanpainan monitorizazio-tresna gisa erabili zuen. Paraguain, herrialdeari zigorra ezartzeko argudio gisa balio izan du Aldarrikapenak, nekazaritzako toxikoen eragindako heriotzen kasuan. Kuban, elikadura burujabetzaren eta elikadura segurtasunaren Legea egin zen, NBE-ren Aldarrikapenean inspiratuta. Azkenik, Kanadan, landa-eremuko langile migranteen lan-eskubideen urraketei, baldintza prekarioei eta tratuari buruzko lege-prozesuetan erabili zen.

Espainiako Estatua, aldiz, Aldarrikapena onartzeko bozketan abstenitu egin zen. Horrek, bada, argi adierazten du herrialdeak baserritarren eskubideen arloan duen ardura eta apustu politiko eza.

► **Azterketa baserritarra eta feminista**

Mundu mailan, Aldarrikapenak balio handia du nekazaritza-eredu industrialen inposizioaren eta enpresa transnazionalen elikadura-sistema globalean duten kontrolaren aurrean; izan ere, horiek ekoiz-

pen baserritarra eta herrien elikadura burujabetza kaltetzen dituzte. Nekazaritzako industriak eta hark elikadura-sistemen gainean duen kontrolak nekazarien eskubideen urraketa etengabea eragiten dute, eta krisi larriak ere eragiten dituzte, hala nola elikadura eta klima krisiak.

Europako La Vía Campesinak (ECVC), bere alde-tik, Aldarrikapenak Europako nekazariarentzat duen eragina baloratzen du. Izan ere, ustiategi txiki eta ertainak etengabe desagertzen ari dira. Europaren nekazaritza-politikek eta, batez ere, NPBak ezikusia egiten die nekazari txiki eta ertainei; baina haiek dira, batez ere, Europako biztanleak elikatzen dituztenak, bioaniztasuna zainduz eta herrien kultura eta gizarte ondarea gordez.

ECVctik proposamenak egin dituzte³, eta adierazi dute ezinbestekoa dela UNDROP Europar Batasunaren politika guztietan kontuan hartzea, haziei buruzko legetik hasi eta NPBaren erreformaraino, eta merkataritza estrategiatik hasi eta nazioarteko elkarteko orientazioetaraino.

³ <https://www.eurovia.org/es/comunicado-de-prensa/the-creation-of-a-working-group-of-independent-experts-on-the-rights-of-peasants-must-mark-the-start-of-undrop-implementation-by-the-eu/>



Aldarrikapenak oinarriko eskubideak lantzen ditu, hala nola, lurra edo haziak eskuratzeko eskubideak, bioaniztasun eskubidea eta Elikadura Burujabetzan ainguratutako zenbait eskubide kolektibo (Elikadura Burujabetza herriek beren elikadura- eta nekazaritza-sistemak zehazteko duten eskubidea, eta elikagai osasun-garriak eta kulturalki egokiak izateko eskubidea da). Gainera, nekazaritzako industriaren eta beste enpresa transnazional batzuen interes ekonomikoek nekazariengan eragiten duten esplotazioa, errepresioa eta lekualdatzeak ahalbidetzen dituzten lege eskasiak eta baldintzak ezabatzea proposatzen du.

Aldarrikapenaren 15. artikuluan elikadura burujabetzarako eskubidea zehazten da, eta nekazariak eta landa-eremuetan lan egiten duten beste langileek beren nekazaritza- eta elikadura-ereduak zehazteko eskubidea dutela adierazten da. Beraz, nekazarien rol aktiboa ezartzen da politika publikoen formulazioaren maila guztietan, elikadura egokia, elikadura segurtasuna eta elikadura burujabetza izateko eskubidea babesteko eta elikadura sistema iraunkorrak eta ekitatiboak sustatzeko.

Berriki, Europako Batzordeak landare ugalketako materialen (LUM) ekoizpenari eta merkaturatzeari buruzko lege-proposamena aurkeztu zuen, baita teknika genomiko berriekin egindako GEOen desarauketarako proposamen bat ere. Proposamen bi horiek zuzenean urratzen dituzte baserritarren eskubideak, Aldarrikapenak 19. artikuluan argi adierazten duen bezala. Izan ere, artikulua horretan, baliabide fitogenetikoei buruzko erabakietan parte hartzeko eskubidea aipatzen da, eta, batez ere, beren haziak gordetzeko, kontrolatzeko, babesteko eta garatzeko eskubidea. Baina proposamen horiek mesede egiten diete nekazaritzako industriari eta ekoizle handiei, eta ekoizpen agroekologikoaren aurrerabidea oztopatzen dute. Gauza bera gertatzen da fitosanitarioen erabilerari buruzko Europako araudiarekin, 2023 amaieran erabakiko dena. Izan ere, araudiak pestiziden erabilera nabarmen murriztu beharko luke, eta batzuk debekatu, adibidez, glifosatoa, "ziurrenik kartzinogenoa den substantzia" gisa kalifikatuta dagoena. Pestizida horien ingurumen eta osasun inpaktua oso handia da, eta zenbait artikulua urratzen ditu, hala nola, 14. artikulua, baserritarren eta landa-eremuko langileen lan-baldintza seguru eta osasungarriari buruzkoa, eta 20. artikulua, bioaniztasunaren kontserbazioari buruzkoa.

Aldarrikapenaren 4. artikulua babesteko (Emakume baserritarren eta landa eremuetan lan egiten duten emakumeen eskubideak), La Vía Campesinak eskubide horien garrantzia justifikatzen duen analisi hau aurkeztu zuen;

"Landa-eremuko emakumeak munduko biztanleriaren laurden bat dira, baina neurritz kanpoko bazterkeria, indarkeria, pobrezia eta funtsezko giza eskubideen ukazioa pairatzen dute. Ama direnen hilkortasuna handiagoa da landa-eremuetan, lan baldintzen berdintasunik eza pairatzen dute, ez zaie soldata-berdintasunik aitortzen, ezta mendekotasun laguntzarik ere eta nekez iristen dira informazioa eta justizia izatera. Ekoizpen-baliabideak-lurra, ura eta maileguak-erabiltzeko, kontrolatzeko eta haietara iristeko eskubideak ukatzen zaizkie sarritan. Emakumeek lur gutxiago izaten dute, kalitate txarragoak eta haien jabetza ez da ziurra. Globalik, luraren % 2 baino ez dute. Herrialde askotan, diskriminazio mota asko pairatzen dituzte, emakume, pobre eta indigena direlako, edo etorkinak direlako, landa-eremuan bizi dira eta oso gutxitan izaten dute lurrik edo bestelako ondasunik eta elika-kateetako lanetan prebrikazioan bizitzera bultzatuak dira. Funtsezkoa da landa-eremuan lan egiten duten emakumeek pairatzen dituzten indarkeria eta diskriminazio mota askotarikoak, pluralak, ugariak eta sekzio artekoak aintzat hartzea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubideen funtsezko printzipioa da. Hori bete dadin, ezinbestekoa da estatuek emakume baserritarren eta landa-eremuetan lan egiten duten emakumeen kontrako de jure eta de facto diskriminazioak debekatzeko neurriak hartzea. De jure diskriminazioaren adibideak dira emakumeei ekoizpen-baliabideetarako -lurra eta soldata egokia, kasu-irigarritasuna, haiek erabiltzea eta kontrolatzea eragozten dieten legeak, esaterako. Emakumeek eskubide horiek eta beste batzuk gizonetik ere bateko berdintasunean erabili ahal izango dituztela bermatzeko, gobernuak de facto diskriminazioa eragozteko neurriak ere hartu behar dituzte. Emakumeen aurkako diskriminazioa beste arrazoi batzuentzako diskriminazioarekin lotuta egoten da: arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelako iritziak, jatorri nazional edo soziala, jabetza, jaiotza edo beste edozein baldintzarekin. Edozein diskriminazio motak emakumeak bereziki nola kaltetzen dituen aztertu behar dute partaide diren estatuek, eta horri aurre egin.

CEDAWek ikusi du emakume baserritarrek erabakietan duten parte-hartze murriztuaren arrazoiak hainbat izan daitezkeela; hala nola, heziketa falta; hizkuntza eta alfabetatze mugatua; mugikortasun eta garraio mugak; segurtasun gatazkak eta kezak; genero-arau eta estereotipo diskriminatzaileak; eta haurrak zaintzea, ura lortu behar izatea eta bestelako arduren ondoriozko denborarik eza. Dagozkien prozedura juridiko, politiko eta instituzionalei buruzko ezagutza mugatuak ere muga dezake ema-

kumeek erabakitze-prozesuetan parte hartzea."

Azterketa hori eta proposamena 2001. urtetik aldarrikapena egiteko eztabaida-prozesuan emakumeek izan duten partaidetza aktiboaren emaitza dira; izan ere, Aldarrikapenean beren eskubideak, hala nola sexu eta ugalketa-eskubideak, eta emakumeen aurkako indarkerien kontrako borroka aintzat har daitezten lan egin dute. Agiriak, hortaz, emakume baserritarren rola indartzen duten zenbait artikulua ditu, batez ere **Emakume baserritarren eta landa-eremuetan lan egiten duten emakumeen eskubideei buruzko 4. artikulua**ren garapen espezifikoak.

4. artikulua;

1. Estatuek beharrekoak diren neurriak hartuko dituzte emakume baserritarren eta landa-eremuetan lan egiten duten emakumeen aurkako **diskriminazio modu guztiak ezabatzeko eta haien ahalduztzea sustatzeko**, gizonekin berdintasunez beren giza eskubideak eta funtsezkoa askatasunak gozatu ahal izan ditzaten, eta landa-eremuaren **garapen ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalaren alde lan egin** dezaten, bertan parte har dezaten eta hura askatasun osoz goza dezaten.
2. Estatuek emakume baserritarren eta landa-eremuetan lan egiten duten emakumeen giza eskubideak eta funtsezko askatasunak betetzen direla bermatuko dute, Aldarrikapen honetan eta giza eskubideei buruzko nazioarteko beste tresna batzuetan ezartzen diren bezala, eta batez ere, honako eskubide hauek:

- **Garapen planen formulazioan eta exekuzioan** maila guztietan parte hartzea, berdintasunez;
- Ahalik eta berdintasun gehieneko baldintzetan lortzea **osasun fisikoa eta mentala, eta, zehazki, osasun zentroetara iristeari, eta informazioa, aholkuak eta familia-plan-gintzako zerbitzu egokiak eskuratzeari dagokienez;**
- **Gizarte segurantzako** programei zuzenean heltzea;
- **Prestakuntza eta hezkuntza formala edo informala**, edota beste edozein motatakoa eskuratzeko aukera izatea, alfabetatze funtzionaleko ikastaroak barne; baita komunitate eta zabalkunde zerbitzu guztiak ere, gaitasun teknikoak handitzeko;



- Autolaguntza taldeak, elkarteak eta kooperatibak antolatzea **aukera ekonomikoak berdintasunez eskuratzeko, norberaren konturako zein besteren konturako enpleguaren bitartez;**
- **Komunitateko jarduera** guztietan parte hartzea;
- **Nekazaritzako finantza-zerbitzuak, kredituak eta maileguak, merkaturatzeko zerbitzuak eta teknologia egokiak** berdintasunez eskuratzeko;
- **Lurra eta baliabide naturalak berdintasunez eskuratzeko, eta horiek berdintasunez erabiltzea eta kudeatzea, eta nekazaritza-erreformetan eta birkokatze-planetan berdintasunezko edota lehen-tasunezko tratua jasotzea;**
- **Enplegu egokia eta ordainsari-berdintasuna izatea, eta gizarte-laguntzak jasotzeko aukera izatea, eta diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak egin ahal izatea;**
- **Indarkeria-mota guztien aurrean babestuta egotea.**

Beraz, zenbait eskubide espezifiko aitortzen zaizkie emakume baserritarrei eta landa-eremuko emakumeei honako arlo hauetan: erabakiak hartzea; osasun arreta; diru-sarrerak sortzea; gizarte-segurantza; prestakuntza eta hezkuntza; lurra eta baliabide naturalak eskuratzeko; eta indarkeria-mota guztien aurrean babesa izatea. Eskubide horietako batzuk giza eskubideei buruzko nazioarteko beste tresna batzuetan ere aitortzen dira, hala nola Emakumeen aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioan (CEDAW, ingelesezko siglen arabera)⁴. Baina UNDROP urrats handia da **emakumeen aurkako diskriminazioa eta gizon eta emakumeen arteko desparekotasunak landa-eremuan ezabatzeko bidean; izan ere, emakume baserritarren eta landa-eremuko emakumeek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketa espezifikoak modu holistikoa landu nahi ditu.**

Emakume baserritarrek historian izandako parte-hartzearen garrantzia adierazten du Aldarrikapenak. Hala-ber, La Vía Campesinaren bagajea ere nabarmen du, zeren bertan genero-parekotasuna aldarrikatu izan baitute, ez bakarrik 50-50 formula baten bitartez, baizik eta arduraz, eta borrokan partekatutako ibilbideen eta berdintasunezko eraikuntza politikoaren bitartez; hau da, emakumeek politika eta antolakuntza erakundeak egiten dizkieten eskaera kolektiboak ordezkatuz.

Aldarrikapenean emakume baserritarren apustua islatu nahi izan dute; hain zuzen, ezin dela baserritarren eta landa-eremuko langileon eskubide kolektibo horietan aurrera egin emakumeek erabat parte hartzen ez bada, eta haien eskubideetan eta berdintasunean aurrera egiten ez bada. Oso garrantzitsua da 4. artikuluan eskubide espezifiko horiek aitortzen direla, eta horiek aldarrikapenaren beste artikulua batzuetako funtsezko alderdiekin osatzen direla.

⁴ 2016an, Emakumeen aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioak (CEDAW) 34. gomendio orokorra onartu zuen (CEDAW Batzordearen 34. GO) landa-eremuko emakumeen eskubideen inguruan. CEDAWren 34. Gomendio Orokorra CEDAWren 14. artikulua interpretazio eskuduna da. Hala, Estatu kideei orientabideak ematen dizkie landa-eremuko emakumeen eskubideak errespetatzeko, babesteko eta gauzatzeko dituzten obligazioak betetzen dituztela bermatzeko ezarri behar dituzten neurriak buruz.

Halaber, funtsezkoa da inolako diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea agertzea, izan ere, Aldarrikapenaren 3. artikuluan aitortzen da generoa beste diskriminazio-kausa batzuei ere gehitzen zaiela, hala nola, jatorriari, nazionalitateari, arrazari, koloreari, leinuari, sexuari, hizkuntzari, kulturari, egoera zibilari, ondareari, desgaitasunari, adinari, iritzi politikoari edo beste iritzi batzuei, erlijioari, jaiotzari edo egoera ekonomikoari edo sozialari.

UNDROPen 4. artikulua indarkeria modu orokorrean aipatzen badu ere, 14. artikuluan, indarkeriarik eta jazarpenik gabe lan egiteko eskubidea nabarmentzen du, sexu-jazarpena barne. Beraz, disposizio bien interpretazioan, kontuan hartu beharko dira generoaren ondoriozko indarkeriari dagozkion parametroak, eta bereziki etxeko indarkeria, sexu-jazarpena eta indarkeria fisikoa, sexuala, hitzezkoa eta psikologikoa. Emakume baserritarrak eta landa-eremuan lan egiten duten beste emakumeak arrisku-egoeran daude, batez ere, landa-eremuko komunitate askotan emakumeei sozialki egokitutako menpekotasun rolaren inguruan dauden jarrerengatik. Halaber, gatazka armatuetan eta gatazka osteko testuinguruetan ere indarkeria-maila handiak jasaten dituzte.

Halaber, garrantzitsua da Aldarrikapenean lurra eta ondasun naturalak eskuratzeko, erabiltzeko eta kudeatzeko eskubidea ere aitortzen dela, eta, nekazaritza-erreformaren, lurraren jabetzaren erreformaren edo birkokatze planen esparruan berdintasuneko edota lehentasuneko tratua izan behar dutela azpimarratzen dela. Gainera, 17. artikuluan adierazten den bezala, Estatuek lurra izateko eskubidearen aurkako diskriminazio era guztiak ezabatze eta debekatzeko neurri egokiak hartu behar dituzte, hala nola egoera zibila aldatzeak edo gaitasun juridikoa eta baliabide ekonomikoak ez izateak ekar ditzaketen horiek. NBEk berak aldarrikapenean onartzen duen bezala, landa-eremuko emakumeek familiaren ekonomian eta tokiko ekonomian duten eginkizuna garrantzitsua bada ere, historikoki lurra izateko edo lurraren jabe izateko eskubidea ukatu egin zaie, baita beste ekoizpen-baliabide batzuk izateko eskubidea ere. Hortaz, garrantzitsua da eskubide horietan aurrera egitea; izan ere, geroago ikusiko ditugun legeetan horiek aitortzen badira ere, oraindik horiek inplementatzeko eta aurrera eramateko oztopo handiak daude.

Aldarrikapena zehazteko prozesuan LVCK egindako eta Aholkularitza Batzordearen ikerketetan aipatutako zenbait proposamen galdu dira, eta horiek aipatu nahi ditugu, duten garrantziagatik:

- Generoan oinarritutako urraketen eta diskriminazioaren kausa nagusietako bat identifikatzen dute, eta emakume baserritarrek beren gorputzaren kontrola izateko eskubidea dutela eta baserritarrek beren sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatu behar dituztela onartzen dute proposamenean, baina testuan hizkera inklusiboa galtzen da. Aitzitik, LVCK

aurkeztutako testuetan hura artikulua guztietan sartzen zen. Aldarrikapenak inolako erreserbarik gabe aldarrikatu beharko lituzke testu osoan zehar genero-berdintasuna eta landa-eremuko emakumeen eskubideak, sexu-aniztasuneko eskubideekin eta generoko eskubideekin batera.

- Azken testua onartu aurretik berrikusitako bertsioetik bertsiora hainbat eskubide galdu ziren, hala nola bizibaldintza egokiak izateko eskubidea, batez ere etxebizitzari, saneamenduari, argindarrari eta urari, garraioari eta komunikazioei dagokienez. Horrekin harremana duten zenbait artikulua dauden arren, horietan ez da espezifikatzen emakumeek baliabide horiek eskuratzeko duten zailtasuna.
- Ezkontzan eta familia-harremanetan berdintasun eta justizia printzipioen arabera tratatuak izateko eskubidea, esfera juridikoan zein pribatuan, eta herrialdeko edo eskualdeko familia nozioa eta ordenamendu juridikoa, erlijioa, ohiturak eta tradizioa zeinahi ere diren.



03 35/2011 Legea, Espainiako estatukoa, Titulartasun Partekatuari buruzkoa



► Azterketa juridikoa

Espainiako estatuko 35/2011 Titulartasun Partekatuari buruzko Legeak figura berri bat sortzen du, beste gauza batzuen artean, Titulartasun Partekatuko Entitatea. Horren arabera, senar-emazteek edo antzeko harreman sentimentalaren bidez loturiko pertsonak sortu ahal izango dute entitate hori nekazaritzako ustiategi bat administraziozko eta kudeatzeko, eta horrez gain, zenbait betekizun betetzen dituzten emakume nekazariari konpentsazio-pentsio bat onartzen die.

— TITULARTASUN PARTEKATUKO ENTITATEAREN ESKAKIZUNAK (TPE)

Titulartasun Partekatuko Legeak dio titulartasun partekatuko erregimenaren pean nekazaritzako ustiategi baten titular diren pertsonak, honako hau bete behar dutela:

- Gizarte Segurantzian alta emanda egon behar dute.
- Nekazaritzan jardutea eta bertan zuzenean eta norberak lan egitea uztailaren 4ko 19/1995 Legean zehazten denaren arabera.
- Ustiatagia dagoen landa-eremu berean bizitzea.

Hau da, bi pertsona horiek nekazari profesional izan behar dute.

Egia da urriaren 4ko 35/2011 Titulartasun Partekatuari buruzko Legea emakumea nekazaritzaren sektorean ikusarazteko onartu zela, baina lege hau kideetako bat emakumea den senar-emazte edo egitatezko bikote erregistratuei ez ezik, bikote heterosexualek eta gizon zein emakumez osaturiko bikote homosexualak ere aplikatzen zaie.



— TITULARTASUN PARTEKATUKO ENTITATEAREN ARAUBIDEA

Titulartasun Partekatuari buruzko Legeak TPEen erregimena arautzen du; honako hau, alegia:

1. Administrazioa bi pertsona titularrei dagokie, batera. Beraz, ezin da administratzaile bakarrik egon, SZ edo OE batean ez bezala.
2. *Titulartasun partekatuko ustiategiaren ordezkaritza solidarioa izango da, haren erabil-pena, besterentzea edo kargatzea dakarten egintzen kasuan izan ezik; halakoetan ordezkaritza mankomunatu izango da.*
3. *Erantzukizuna zuzena, pertsonala, solidarioa eta mugagabea izango da bi titularren kasuan. Sozietate zibilarren edo ondasun-erkidegoaren antzera.*
4. *Ustiategiak eragindako etekinak erdibana banatuko dira titulartasun partekatuko nekazaritzako ustiategiaren bi titularren artean.*

Klausula hori mugakorra da, beti banatu behar izango dituztelako etekinak % 50ean, pertsona batek besteak baino lan gehiago egin arren; baina alde ona du emakumeari, gutxienez, % 50 bermatzen diola.

5. *Etekinak banatutakoan, bi ezkontideen ezkontza-arabide ekonomikoari edo, kasu bada, egitatezko bikoteek dituzten ondare-itunei jarraikiz arteztuko dira.*

TPEko kide bakoitzak bere etekinen aitortpena egingo du errenta aitortpenean.

Klausula horiek sartzean gainerakoak negoziatu ahal izango dira inolako legerik urratzen ez badute.

Legeak ez du behartzen kontratu hori eskritura publiko bihurtzera, baina derrigorrezkoa da legeak zehaztutako hainbat kasutan, esaterako, ondasun higiezin bat ekartzen bada, edo nekazaritzako laguntzak lortzeko betekizun gisa.

— TITULARTASUN PARTEKATUKO ENTITATEAREN AMAIERA

35/2011 Legeak arautzen du entitatearen amaiera, 8. artikuluan:

1. Nekazaritzako ustiategien titulartasun parte katua honako kasu hauetan amaituko da:

- *Ezkontza ezeztatzean, banantzean edo desegitean.*
- *Egitatezko bikotea hautsi delako edo kideetako bat hil delako.*
- *Legeak ezarritako edozein kausarengatik nekazaritzako ustiategiaren titulartasuna galtzean.*
- *Ustiategien titulartasuna beste inori eskualdatu zaiolako.*
- *Bi titularretako edozeinek Lege honen 3. artikuluan xedatzen diren betekizunak betetzeari uzten diotenean.*
- *Titulartasun partekatua duen nekazaritzako ustiategiaren titularrek adostu dutelako, adostasun hori Lege honen 6. artikuluan xedatzen den titulartasun partekatuko erregistroari bertaraututa edo sinadura elektronikoaren bidez adierazi behar da.*

2. Aurreko ataleko a) letratik e) letrara artean – biak barne – xedatu diren kausetakoren bat gertatuz gero, pertsona interesatuak jakinaraziko dio Lege honen 6. artikuluan xedatzen den titulartasun partekatuko erregistroari eta bestela, beste titularrak edo haren ondorengoak.

Definizioan bertan adierazten den bezala, Titulartasun Partekatua senar-emazteen eta egitatezko bikoteen artean soilik sor daiteke; beraz, lotura hori hausten bada, titulartasun partekatua legez amaitzen da.

Orduan, zer gertatuko litzateke a) eta b) kasuetan – heriotza kasuan izan ezik – biek jardue-

rarekin jarraitzea erabakitzen badute? Orduan, titulartasun partekatua antzekoak diren gaur egungo figuretako bat hartu beharko luke; sozietate zibila edo ondasunen erkidegoa; eta kasu horretan, bi aldeek sinatu beharko dute berriro eratzeko kontratu pribatua, eta berriro negoziatu beharko dituzte klausulak eta berriro eman beharko dute altan sozietatea dagokion Ogasunean eta IFK berri batekin.

Ulertzen dugu, diru-laguntzen konpromisoen ondoretarako, ez litzatekeela arazorik egongo ustiategiaren jarraipena onartzeko, titularrak pertsona berberak direlako eta ustiategia ere berbera delako.

— KONPENSASIZIO-PENTSIOA

Eskubide hori oso interesgarri eta garrantzitsua da; Titulartasun Partekatuari buruzko 35/2011 Legearen 13, 14 eta 15. artikuluetan xedatzen da eta pentsio bat onartzen dio ezkontidearengandik banantzen edo dibortziatzen den nekazariari, betekizun batzuk betetzen baditu.

Artikuluak banan-banan aztertuko ditugu.

Nekazaritza ustiategian benetako lankidetzagatik konpentsazio ekonomikoa

13. artikulua. *Kompentsazio ekonomikorako eskubidea onartzea*

1. *Pertsona ezkonduak edo afektibitate-harreman batez elkarturik daudenek ustiategiaren nekazaritza-jardueran benetan eta erregularki parte hartzen badute, egindako lanarengatik inolako ordain edo kontraprestaziorik jasotzen ez badute eta Lege honek jasotzen duen titulartasun partekatua erregimenari atxiki ez bazaizkio, konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango dute, ondoko atal eta artikuluetan jasotzen diren terminoetan eta ondorio juridikoekin. Benetako lana ziurtatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilibili ahal izango da. Hala ere, ekonomia araubidea irabazpidezkoa duten senar-emazteen kasuan, benetako lana aurrez onartutzat joko da.*

2. *En los casos de transmisión de la explotación agraria, de nulidad o disolución del matrimonio por cualquiera de las causas previstas en el artículo 85 del Código Civil, o de la análoga relación de afectividad por separación, nulidad, o muerte, o en los supuestos de liquidación del régimen económico del matrimonio o de las relaciones patrimoniales establecidas por la pareja de hecho, las personas a las que se refiere el apartado 1 tendrán derecho a exigir una compensación económica al otro titular de la explotación agraria o a sus herederos.*

➔ Nori zuzendua dagoen:

- *“persona ezkondu edo afektibitate-harreman batez elkarturik daudenei”, hau da, gizon zein emakume.*
- *“ustiategiaren nekazaritza-jardueran benetan eta erregularki parte hartzen dutenei”. “benetan eta erregularki” kontzeptuak interpretazio asko izan ditzake eta ez dago ondo zehaztua; beraz, izan daiteke egunean ordubete lan egitea edo astean 10 ordu edo astean 40 ordu; uste dut, garrantzitsua dela lana jarraitua izatea.*
- *“egindako lanarengatik inolako ordain edo kontraprestaziorik jasotzen ez badute eta Lege honek jasotzen duen titulartasun partekatua erregimenari atxiki ez bazaizkio”.*

➔ Frogaren inguruan honako hau dio:

- *Benetako lana ziurtatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilibili ahal izango da.*

Zuzenbidean, frogabideak honako hauek dira: dokumentuak, lekukoak, galdeketa eta hitzak, soinuak eta irudiak berregiteko bitartekoak.

Adibidez, honako hauek: ezkontidearen errenta-aitorpenak, ustiategiaren titulartasun ziurtagiria, emakumearen izenean dauden merkatu-tasak, inguruko auzokideak, senitartekoak (seme-alabak, etab.) testigantza ematera deitzea.

- *Hala ere, ekonomia araubidea irabazpidezkoa duten senar-emazteen kasuan, benetako lana aurrez onartutzat joko da.*

Hau da, irabazpidezkoak direnean, benetan frogatutzat joko da lan egin dela, arrasto edo seinale hutsekin, horrenbeste frogabide aurkeztu behar izan gabe. Gauza bera, ondasunen komunikazioaren arabera ezkondu ba daude.

Ezkontidearekin adostasuna lortzen ez bada, konpentsazio hori lortzeko, kasu bakoitzak ezartzen duen prozedura zibilaren arabera eskatu beharko litzateke: banantze-demanda, dibortzio-demanda, ondorengoei egindako erreklamazioa, kantitate-erreklamazioa, etab. eta bakoitzaren inguruabarren arabera, emakumeak egiaztatu egin beharko du lan hori konpentsazioa jasotzeko.

14. artikulua. *Kompentsazioaren zenbatekoa eta ordainketa*

1. *Kompentsazioa kalkulatzeko, nekazaritzako ustiategiaren benetako balioa, nekazaritzako jardueran lankidetzan emandako benetako denbora eta*

merkatuko jardueraren balorazioa hartuko dira kontuan, zuzenbidean onartutako frogabideekin egiaztatuko direnak.

2. *Kompentsazio hori bateragarria izango da ezkontideak edo egitatezko bikoteko kideari dagozkion ondare-izaerako bestelako eskubideekin.*

3. *Kompentsazioa, ahal dela, ordainketa bakarrean emango da, konpentsazioa ordaintzeko, zenbatekoari, moduari, epeei eta bermeari buruz ados ezaketenaren kalterik gabe.*

Egokiena litzateke ustiategiaren balioaren peritubalorazio bat egitea, eta egindako lana oinarri hartuta, pentsio hori kalkulatzeko.

15. artikulua. *Eskatzeko epea*
Kompentsazioa eskatzeko ekintza iraungi egingo da Lege honen 13.2. artikuluan xedatzen diren balizkoak betetzen direnetik bost urtera.

35/2011 Legeak ez die eskubide gehiago aintza testen emakume baseritarrei.

➤ Azterketa baseritarra eta feminista

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Ministerioaren web-orrian agertzen denez, 2023ko azaroan, hau da, Titulartasun partekatuari buruzko Legea onartu eta hamabi urtera, 1.233 emakumek bakarrik baliatu dute legea alta emateko, lege proposamenaren eragin-txostenak 36.000-63.000 aurreikusten zituen arren.

Geroago egingo dugun analisisan, CERES Landa Eremuko Elkarteen Konfederazioak duela sei urte egindako txostena landuko dugu. EHNE-Bizkaiko emakumeak erakunde horretan ere parte hartzen dute. Txostenean, informazioa eguneratzen da eta Legearen azterketa kritikoari berrekiten diogu, Legearen ahultasunak eta aukerak aztertuz eta oraindik baliagarriak diren gomendioak berreskuratuz.

Halaber, Estatuak 2018an Landa Eremuaren Dinamizaziorako Idazkaritza Nagusiaren bitartez egindako ebaluazio txostenean jasotako balorazioak laburbilduko ditugu⁵.

— AHULTASUNAK

1. Legearen aplikazioari dagokionez:

- Legea modu nahasgarrian idatzita dago, eta hutsune asko ditu.

⁵ https://redpac.gob.es/sites/default/files/documents/01_Jornada_TC_Zaragoza_Isabel%20Gimeno.pdf

- Autonomia erkidego batetik bestera Legearen ezagutza eta aplikazio praktikoa oso desberdina da.
- Zenbait autonomia erkidegotan oraindik garatu gabe dago.
- Oro har, inskripzio gutxi egon dira. Azken sei urteotan inskripzio-kopurua bikoiztu egin da, baina oraindik oso gutxi dira Legearen eragin-txostean aurreikusitakoarekin alderatuta.
- Legea oso berandu iritsi da (Berdintasunerako legea 2007koa da). Emakumeek beste formula batzuk erabili dituzte, errazagoak eta irisgarriagoak, hala nola Sozietate Zibila edo Ondasun Komunitatea.

2. Informazioari eta zabalkundeari dagokionez;

- Sentsibilizazio eta zabalkunde kanpaina gutxi egin dira autonomia erkidegoetan. Azken sei urteetan informazio-materialetan aurrera egin badute ere, oraindik oso urriak dira Ministerioak antolatzen dituen prestakuntza-eremuak (hamaika 2017tik 2023ra bitartean) eta autonomia erkidegoen kanpainak.
- Zabalkundea, askotan, ez da hartzaileengana iritsi, ez baitira kontuan hartu landa-eremuko emakume askok, eta batez ere emakume nagusiek, informaziora iristeko dituzten zailtasunak.
- Legea ez da zabaldu edo oso gutxi zabaldu da gizonen artean. Horretarako diru-laguntzak badaude ere, oraindik erresistentzia handia dago gizarte segurantzaren bikoitza kotizatzeari dagokionez, batez ere gizonen artean. Hala, ez dituzte kontuan hartzen emakumeen lanaren aintzatespena, eskubide ekonomiko eta sozialak eta zerga-kargaren banaketa, besteak beste.

3. Ezagutza-mailari dagokionez;

- Ezezagutza handia dago legeak eskaintzen dituen aukeren inguruan, bai hartzaileei dagokionez, bai hori inplementatzeko arduradun diren teknikarien artean.
- Legea baliatu duten emakumeen ia erdiek ez diote beste emakume bati gomen- datuko.
- Legea ez ezagutzeak beldurrak eragiten ditu, hala nola lortutako beste eskubideren bat galduko ote den eta, bikote-harremanean aldaketaren bat gertatzekotan, etorkizunean zer nolako eragina izango ote duen.
- Krisialdi ekonomikoa: Zerbitzurik eta pizgarririk edo diru-laguntzarik ez.



4. Gestioari eta tramitazioari dagokionez;

- Tramitazioa zaila eta konplexua da. Azken urteotan hobetu da, baina modu desparekoan autonomia erkidego batetik bestera.
- Autonomia erkidegoetako, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako eta Ogasun eta Gizarte-Segurantzako bulegoetako gestoreei bideratutako formazioa eskasa da.
- Interesa zuten emakumeek hura galdu egin dute, legea oso konplexua delako.
- Itxaronaldi luzeak.
- EAEren kasuan, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legearen arabera, erregistratutako ustiategi baten titulartasun fisikoa modu zuzen eta pertsonalean bikote ezkondu baten kide biei badagokie, ustiategi horren titulartasunak titulartasun partekatuaen figura juridikoa hartuko du. Artikulu hori, ordea, indarririk gabe geratu zen Emakume Nekazariaren Estatutua 2015ean onartu zenean (informazio gehiago emango dugu Estatutu horri buruzko artikuluan).

5. Pizgarriei dagokionez;

- Legeak jasotzen dituen abantaila ekonomikoak eta hobariak ez dira nahikoa erakargarriak.
- Zenbait autonomia erkidegotan, bateraezintasuna dago titulartasun partekatuaen ondoriozko irabazien, landa-garapenerako beste laguntza batzuen eta PFEZaren moduluen artean.
- Legearen onurak ez dira oso ikusgarriak, gutxi gorabehera hartzaileen laurdenek soilik izan dute lehentasuna diru-laguntzak eskuratzean.
- Emakumeak nekazaritza sektorean sartzea sustatzen duten beste figura batzuk errazagoak eta erakargarriagoak dira.
- Gainera, CERESen arabera, Legearen onurek ez

dute Gizarte Segurantzaren kotizatzearen garrantziari buruz sentsibilizatzen lagundu, emakumeek eskubide ekonomiko eta sozialak eskuratzeari dagokionez.

6. Beste batzuei dagokionez;

- Legeak ez du asko lagundu landa-eremuan eta nekazaritza-jardueran gizonen eta emakumeen artean dagoen desparekotasunari buruz sentsibilizatzen. Gehienek gizonen "laguntzaile" gisa ikusten dituzte emakumeak, eta ezikusia egiten diote emakumeek ekoizpenaren, eraldaketaren, banaketaren, merkaturatzearen, administrazioaren eta ordezkartzaren arloetan egiten duten lanari, eta, jakina, zaintza-lanei ere.
- Legeak berdintasunaren aurkakoak diren jardunbideak jasotzen ditu, esate baterako, erregistroan izena emateko ezkontidearen baimena behar da, eta gerta daiteke hura ados ez egotea. CERESetik proposatu dute inskripzioa ofizioz egitea, hau da, ezkontide bakar baten izenean dauden nekazaritza-ustiategi guztiak Titulartasun Partekatuko izatera igarotzea. Hala, epe bat ezarriko litzateke adostasuna adierazteko edo titulartasuna ezkontide bakarraren izenean mantendu nahi dela komunikatzeko. Horrela, legearen eraginkortasuna bermatuko litzateke, eta gizonen baimena ematea eskatzen duten egoerak saihestuko lirateke.
- Oso interes politiko eta sentsibilitate gutxi dago desparekotasunaren inguruan: neurri guztiak abian jartzeko premiaren inguruan konbentzimendu gutxi dago.
- Desparekotasunari dagokionez, benetako eta egiturazko aldaketak egiteko apustu politikoa ahula da, izan ere, estatistiken arabera, emakumeek lan egiten duten ustiategiaren tamaina txikia edo ertaina izaten da. Erakundeek nekazaritza-eredu industrialaren eta desaraututako

merkatu baten aldeko apustua egiten dute, eta horren ondorioz, ustiategi horiek alde batera uzten dituzte, eta haien bideragarritasuna kolokan jartzen dute.

ALDERDI POSITIBOAK

- Legeak landa-eremuko emakumeen eskaera bati erantzuten dio da, eta emakumeen erakundeekin inplikazio handia izan du.
- Titulartasun partekatuaen inguruan interesa badagoela hautematen da, batez ere emakumeen artean, eta, are handiagoa, orain arte gizarte segurantzaren kotizatu ez duten emakumeen artean.
- Gizarte Segurantzaren kuotaren zenbatekoaren % 30eko murrizpenarekin alta emateko aukera gauzatu da (eta gehiago ere bai, autonomia erkidegoen arabera).
- Legeak aipatzen dituen laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeko abantailak daude.
- Zabalkundeari dagokionez, Ministerioak hura hobetu du azken urteetan. Izan ere, zenbait kanpaina, informazio-gida bat eta inskripzioa egiteko pausoei buruzko infografia egin du. Halaber, hiru hilez behingo buletinak, legeari buruzko informazio-jardunaldiak eta esperientziei buruzko bideoak egiten dituzte, eta autonomia erkidego bakoitzean zalantzak argitzeko eta interesa dutenei laguntzeko arduradunak eta telefono zenbakiak ezagutzera ematen dira.

Autonomia erkidegoetan:

- Badira Legeak aipatzen dituen horiez gain, bestelako pizgarriak, abantailak edo onura gehigarriak ere.
- Bederatzi autonomia erkidegotan araudi espezifikoa bat dago titulartasun partekatuaen inguruan.
- Behin titulartasun partekatua ezarrita, dagozkion erregistro guztien aldaketa (ordainketa bakarrerako eskubidea, abeltzaintzako ustiategiaren erregistroa, etab.) ofizioz egiten da autonomia erkidego guztietan, salbuespen txiki batzuekin.
- Badago titulartasun partekatua azaltzen duen gidaliburu didaktiko txikia, baita aldaketa egoteko gestioei buruzko infografia ere ⁶.

⁶ https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/igualdad_genero_y_des_sostenible/manualtitularidadcompartidaweb_tcm30-451533.PDF?jornada_TC_Zaragoza_Isabel%20Gimeno.pdf.pdf

LEGEAK HONETAN LAGUN DEZAKE

- Nekazaritzako ustiatzietan emakumeek egiten duten lanaren aintzatespen soziala legala eta ekonomikoa.
- Landa-eremuan emakumea bera eta historikoki bigarren maila batean geratu diren lanak ("laguntza" gisa tratatu direlako edo aintzat hartu ez direlako) bistaratzeko, bai ekoizpenaren, eraldaketaren eta tokiko merkaturatzearen arloetan, bai zaintza-lanei dagokienez.
- Emakumeen nekazaritza-jarduera profesionalizatzea.
- Landa-eremuko emakumeek lan-kontzientzia hartzea.
- Emakumeen laneratze iraunkorra.
- Nekazaritzako ustiatzietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea erabakiak hartzei dagokionez.
- Emakumeak zuzendaritza-organoetan egotea eta sektorea berritzea.
- Emakume gehiago nekazaritza-sektorean afiliatzea.
- Emakumearen elkartze-mugimendua indartzea.
- Ustiatzietan jarduerak ekonomikoak eta enpresarialak bultzatzea.
- Landa-eremuetako emakumeen autonomia ekonomikoa hobetzea.
- Pentsio kontributiboa jasotzeko eskubidea.
- Ordainsari konpentsatzaile bat ematea.
- Aintzatespen soziala eta nekazaritza-eskubideak.
- Emakumeen lan-denboraren erregularizazioa.
- Emakumeak bikotearen barruan duen posizioa hobetzea.
- Rolak banaketa sexistarekin haustea.
- Landa-eremuan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borondatea izatea botere guztiek (hainbat administrazio daude inplikaturik).
- Familia-nekazaritza laguntzea. Hala ere, gaur egun, eztabaida piztu da termino horren inguruan; izan ere, modu kolektiboan egiten diren ekimen berrietan beti ez dago familia edo bikote harremanik, eta harreman-eredu heteropatriarkala gainditzen saiatzen dira.



LEGEA HOBETZEKO ETA SUSTATZEKO GOMENDIO OROKORRAK

- Legearen zabalkundeari segimendu egokia egiten jarraitzea, hura lurraldera eta xede diren hartzaileengana iristen dela bermatzeko.
- Gizonei eta familia osoari zuzendutako zabal-kunde espezifikoak egitea.
- Maskulinitate berriei buruzko sentsibilizazioa egitea nekazaritza-erakundeetan.
- Legearen abantaila buruzko azalpen-jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzen jarraitzea, hartzaileen parte hartzerako baldintzei lehentasuna emanez.
- Publizitate-kanpainak egiten jarraitzea zabal-kunde handieneko hedabideetan (prentsan, irratiari eta telebistan), legeak epe ertain eta luzean dituen onurak eta abantailak gizarte osoari eta, batez ere, nekazaritza-sektoreari azaltzeko.
- Landa-eremuaren maskulinizazioari buruzko sentsibilizazio lana egiten jarraitzea, bai eta emakumearen lanak duen eragin positiboaren sustapena ere, belaunaldi arteko erreleboa ahalbidetzen duelako.
- Epe ertain eta luzean Gizarte Segurantzaren kotasunak duen garrantziari buruzko sentsibilizazio lana egiten jarraitzea, eta hura sustatzea.
- Legean jasotzen diren beste aukerak (Titulartasun partekatua gain) ere ezagutzera ematea: benetako kolaborazioagatik ordain ekonomikoa eta erantzukizun mugatuko sozietatea.

Kudeaketarako;

- Administrazio publikoen artean koordinazio handiagoa behar da, bai eta administrazioen eta emakumeen elkarrekin artean ere.
- Administrazio publikoetako teknikariei prestakuntza espezifiko eskaintzea (nekazaritza, ogasuna, gizarte segurantzaren, nekazaritza-bulegoak, etab.).
- Titulartasun partekatuen erregistroan izena emateko tramiteak erraztea.
- Dokumentazioa modu telematikoan aurkezteko aukera ematea.
- Legeari pizgarri ekonomiko gehiago ematea. Diru-laguntza, desgrabazio edo zerga-kenketa ildoak gehitzea.
- Gizarte Segurantzaren hobarien onuradunen adina 65 urtera arte luzatzea.
- Gizarte Segurantzara afiliatzean emakumei emandako hoberiak gizona afiliatzen denean baino handiagoak izatea.

ONDORIOAK

Lege hau emakume nekazaritza aintzatespen legalerako esparru garrantzitsua da, baina agian berandu heldu da arrisku larriari dagoen sektore baterako. Gainera, legeak oso aplikazio-maila baxua izan du eta tamaina ertain edo txiki ustiatzietan familiarekin bideragarritasuna kolokan dago; izan ere, ez dute nekazaritza-politiken babesik eta elikagaien

merkatu globalizatu bati aurre egin behar diote. Ondorioz, gaur egun, legea ez da emakumeen lanaren aintzatespena aldatzeko eta nekazaritzaren sektorean berdintasuneko harremanak sortzeko gai. Ez bada Legearen zabalkundeak sustatzen, haren aplikazioa hobetzen eta hura laguntzeko neurri ekonomikoak, sozialak eta politikoak txertatzen, nekez izango du espero den arrakasta.

Halaber, beharrezkoa eta ezinbestekoa da nekazaritza politikak ekoizpen-eredu iraunkorren, agroekologikoen eta eskala ertain edo txikien aldeko apustu bat egitea, gertuko elikadura-sistemen eraikuntzan aurrera egitea, eta beste lege batzuk betearaztea, hala nola elikadura-katearen Legea, horrek ekoizpen-kostuak betetzeko aukera emango bailuke.

Horrekin batera, gaur egun sektorean sartzen diren ekimenek eredu familiarren ezaugarriak aldatu dituzte, eta ezkontzan edo bikotean oinarritzen ez diren proiektu kolektiboak aurkitzen ditugu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, CERESetik oso proposamen zehatzak egin dituzte Titulartasun Partekatuko Legearen hurrengo urratsei dagokionez, hura emakumeentzat benetan erabilgarria izatea nahi bada behintzat. Hona hemen proposamen horiek:

- Ofiziozko Titulartasun Partekatua. Hau da, ezkontide titular bakarra duten nekazaritzako ustiatzietan guztiak Titulartasun Partekatukoak izatera igarotzea, epe bat emanez adostasuna adierazteko edo titulartasuna kide bakarraren izenean mantendu nahi dela komunikatzeko. Haien ustez, neurri horrek benetan bermatuko luke legea genero-berdintasuna sustatzeko eraginkorra dela.
- Funtzionarioak trebatzeko prozesuekin jarraitu behar da, ustiatzietan aldaketako tramitea egitera doazen pertsonen arreta egokia eman ahal izateko.
- Ustiatzietan Titulartasun Partekatuen eredura egokitzeko erregistratu eta abian jartzekoak tramite burokratikoak erraztea.
- Genero-berdintasuna nekazaritza-ustiatzietan sustatzeko azpi-programa bat sortzea. Funtsezkoa litzateke titulartasun partekatuko ustiatzietan hainbat sustapen-neurri abian jartzea; hartara, eredu horren aldeko apustua egiten duten pertsonen gizarte-segurantzako kuotaekin konpentsatuko litzateke egindako ekarpen ekonomikoa, ekoizpen-eredurako beste konpentsazioen bidetik.

• Familia-ustiategiek ezin diete RETA erregimene-ko kotizazio bikoitzari eutsi, oso txikiak direlako. Beraz, gure ustez, ezein laguntza-neurrik ez du eraginik izango ez badu tratu desberdin bat edo gizarte segurantzako kotizazioen murriztapen iraunkor bat ematen. Gainera, lege hori bultzatzeko neurri gisa, lege laguntzen baremazioan aplikatzea proposatzen dute.

• Funtsezkoa da elikagaien ekoizpenarekin loturiko politikak emakume gehien dituen ekoizpen-erduarentzat mesedegarriak izatea. Estatistikek adierazten dute emakumeak titular diren ustiategiak txikiagoak direla eta lan-merkaturatze eta salmenta-sistema jasangarriagoak dituztela, gizarte, ingurumen eta ekonomia ikuspegi batekin. Titulartasun partekatua bultzatzeak ustiategi txikiak, familiarrak eta lurraldean kokatuak, bioaniztasuna zaintzen dutenak eta ingurumena errespetatzen dutenak sustatzea dakar.

• Titulartasun partekatuko araubidean egotearen eta beste diru-laguntza edo laguntza batzuk jasotzearen artean dauden bateraezintasunen zerrenda ezagutzera ematea. Jarduera osagarrien zerrenda argitaratzea ere eskatzen dugu, bertan titulartasun partekatua araubidean sartu ahal izango liratekeen horiek identifikatu ahal izateko. Horrela, emakumeak protagonista dituzten nekazaritza-ustiategien dibertsifikazioa sustatuko litzakete eta euren lanaren ondoriozko eskubideak onartuko litzazkieke.

• MAPAMatik emakumeek nekazaritza-jardueran sartzeko dituzten modu desberdinak identifikatzea eta zabaltzea/ezagutzera ematea; identifikatu ahal izateko 2012an Legea indarrean sartu zenetik zenbat emakume sartu diren eta zergatik aukeratu dituzten beste formatu batzuk.

• Nekazaritza-ustiategien tipologiari buruzko datu zehatzagoak sexu arabera bereizita biltzea eta aztertzea, eskaerak eta beharrak ezagutzeko.



04 Emakume nekazarien Estatutua



► Azterketa juridikoa

Emakume Nekazarien Estatutua Eusko Jaurilaritzaren Lege bat da, 2015eko urriaren 22an jarri zen indarrean eta bertan, emakume nekazariari zenbait eskubide onartzen zaizkie, Titulartasun Partekatua, besteak beste.

— APLIKAZIO-EREMUA

“Emakume nekazaria” honela definitzen du Estatutuak: *urteko errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueratik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzen duena; betiere, ustiategirako egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25 baino txikiagoa, eta nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, berriz, nekazaritza-laneko unitateen arabera, lanean guztira eman duen denboraren erdia baino gehiago bada*”.

Definizio hori Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legean nekazari profesionalari ematen zaionaren antzekoa da:

Nekazari profesionala: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta dagoen nekazaritza-ustiategi baten titularra izanik, urteko errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueratik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzen duen pertsona fisiko edo juridikoa; betiere, bere ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25 baino txikiagoa eta nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, nekazaritza-laneko unitateen arabera, lanean guztira emandako denboraren erdia baino gehiago bada. Pertsona fisikoa bada, bere nekazaritza-jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean izena emanda egon beharko du.

Desberdintasuna da Estatutuko definizioan ez dela jasotzen nekazaritzako ustiategi baten titulartasun betekizuna ez Gizarte Segurantzaren izena emanda egon beharra; beraz, printzipioz, definizio zabala-

goa da, eta ustiategien titular ez diren emakumeak ere hartzen ditu barruan.

Omisio hori positiboa da, hala ere, onartzen bada Estatutuaren helburua benetan eta erregulariki sektorean lan egin duten arren administrazioan, gizartean, zerga-arloan eta arlo profesionalean onarpenik izan ez duten emakume guztiak ikusaraztea dela, motz geratzen da, ez dituelako kontuan hartzen, sektorean lan egin izan arren, % 50eko errenta horretara iritsi ez diren emakumeak.

— TITULARTASUNA ETA TITULARTASUN PARTEKATUA

Emakume Nekazarien Estatutuak onartu egiten du ustiategi baten titulartasuna eta Titulartasun Partekatua edukitzeko eskubidea, 35/2011 Legearen araudi berria baliatuta.

Estatutuaren II. tituluari, TITULARTASUNA ETA TITULARTASUN PARTEKATUA NEKAZARITZA USTIATEGIETAN, bi kontzeptu aipatzen dira:

1. Titulartasuna: ustiategiaren administrazio-erregistroko titulartasuna ulertzen da, eta
2. Titulartasun Partekatua: figura juridiko berria da, Titulartasun Partekatuari buruzko 35/2011 Legearekin sortu zen, eta Titulartasun Partekatuko Entitateak eratzeko hainbat betekizun eskatzen ditu.

Erregistroko titulartasuna lortzea

10. artikulua irakurriz gero, honako hau dio:

10. Artikulua. titulartasuna lortzeko eskubidea

1. Emakume nekazariak eskubidea dute, gizon nekazarien baldintza berberetan, nekazaritza-ustiategien titulartasuna eta horrek dakartzan onura eta eskubide guztiak lortzeko.

Emakume nekazari kontzeptua azpimarratzen da. Lehenik eta behin argitu beharko litzateke emakume nekazariak aipatzen direnean soilik 7.1 definizioa betetzen dutenak aipatu nahi diren, ala hori betetzen ez dutenak ere bai.

Hona hemen bi aukerak:

1. Ez mugatzea soilik 7.1. artikuluan definituta jasotzen diren emakume nekazariei.

Horrek abantaila bat dakar; izan ere, baserrian lan egiten duen edozein emakumek izango luke ustiategiaren titular izateko eskubidea. Estatutuaren arabera ezin da jakin, ordea, nola lor dezakeen emakumeak Titulartasuna, hau da, zuzenean egin ote dezakeen, ezkontidearen baimenik gabe, ala baimenarekin; zer frogatzea behar dituen edo ez dituen aurkeztu behar; lortzeko mekanismoa falta da.

2. Soilik 7.1. artikuluan definituta jasotzen diren emakume nekazariei mugatzea.

Honako hau da gakoa: Nola frogatuko ditu emakumeak etekin horiek? Errentaren gaineko aitortzearen aitortzen baditu ez dago arazorik, baina zer gertatzen da ezin badu? Izan ere, arazoaren mamia horixe da, emakumeak historikoki ezin izan duela etekinik ez lortu ez aitortu.

Hortaz, etekin horiek lortzeari buruzko interpretazio zabalago bat izan daiteke honako hau: titular ez diren emakumeek lortutako etekinak, ustiategian lan egiten dutenak eta ez dutenak irabazirik aitortzen ezkontideak egiten duelako, baina irabazpidezko erregimenaren edo foru-komunikazioaren arabera ezkontuta daudenez, ezkontideak lortzen dituen etekinak, irabazpidezko ondasunak direnez, bienak dira eta, beraz, irabazien erdiak emakumearenak dira.

Hala bada, gure ustez, artikulua honen idazkera hobetu beharko litzateke, interpretazio hori ondorioztatzea oso zaila delako zuzenbideari buruzko oinarriko ezagutza batzuk ez dituenarentzat.

Hala ere, hala ulertzen badugu, kanpoan geratuko liriteke bigarren kasuan egon arren, ondasunen banaketa-erregimenean ezkontuta dauden edo izateko bikote diren emakumeak, etekinak justifikatzerik ez dutelako.

Baina jo dezagun emakumeak baduela etekin horiek egiaztatzeko modurik. Ezkontideak eragozpenik jartzen ez badiu, bizi diren lurralde historikoko Nekazaritza Zuzendaritzara joan eta alta hartzea besterik ez luke izango.

Baina ezkontideak uko egiten badiu? Zer baliabide izango litzuke emakume horrek?

Gure ustez, bi bide egongo liriteke.

1. Emakumeak Nekazaritza Zuzendaritzan bide administratiboari ekitea. Eta administrazioak ofizios emango lioke alta? Ez dakigu.



2. Ezkontidearen aurkako prozedura zibila, epaitegiak ebatz dezan eta titulartasun erregistroa gauzatzeko agindua eman dezan. Bide horrek gatazka piztuko luke.

Gure ustez, frogatzea moduan erabili ahal izango liriteke "konpentsazio-pentsioari" dagokion atalean argitu den bezala emakumeak ustiatetaren nekazaritza-jardueran benetan eta erregulariki parte hartzen duela egiaztatzeko erabilgaitako frogak berberak, irabazpidezko erregimenpeko lana dela hartuta.

Azkenik, ezinbestean aipatu behar da emakume baten ustiategi baten titulartasuna lortzen badu, berehala eman ahal izango duela izena nekazaritzako gizarte segurantzaren eta ogasunean.

Urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren enpresak inskribatzeari eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta datu-aldaketei buruzko Araubide Orokorra onesten duenak, arautzen du nekazaritzako gizarte segurantzaren langile autonomo gisa alta emateko, nahitaez aurkeztu behar dela gutxienez nekazaritza-ustiategi baten titulartasuna egiaztatzen duen agiri bat eta, emakume horrek, "enpresaburu" denez, ogasunean izena eman ahal izango du eta eman behar du, gainera.

Hala ere, orain arte gertatu izan da zenbait kasutan emakumea titularkide gisa egon arren, ez zaiola urrats horiek ematen utzi.

Titulartasun Partekatua lortzea:

Estatutuaren 10. artikulua 2. atalean, honako hau jasotzen da:

2. Aurreko 7.1 artikuluan definitu den erako emakume nekazari batek lana egiten duen ustiategi legeko figura bati lotu beharko zaizkio, dela titulartasun fisikoa edo dela elkarte bidezko titulartasuna, eta haren bidez posible izan beharko da lortzea emakume nekazaria titular izateak, ikusarazteak eta ahalduak dakartzen eskubideak. Lorbide hori ez zaie aplikatuko ustiategian lana besteren kontura egiten duten emakume nekazariei, ez eta ustiategian kontratatutako emakume profesional autonomo ere.

Bigarren kasu honetan abiapuntu hartzen dugu emakume nekazaria dela definizioaren arabera; hau da, % 50 etekina lortzen duela.

10. artikulua eskubide gisa idatzita dagoen arren, lerroalde horretan betebeharrak arautzen da.

Atal honetan honako hau eskatzen da: ustiategi batean emakume nekazari bat baldin badago, ustiategi sozietate zibil (SZ aurrerantzean), ondasunen erkidego (OE aurrerantzean), titulartasun partekatuko entitate, sozietate mugatu batek edo beste edozein sozietate motak administratu eta kudeatu behar du.

Ulertzen dugu zergatik dagoen betebeharrak gisa arautua; izan ere Legearen helburua emakume nekazariaren onarpen administratiboa, fiskala eta soziala da. Hala ere, zerga-lege orokorrek berez behartzen dute dagoeneko jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen pertsona oro enpresaburuaren erregistro fiskalean izena ematera.

Emakumea etekin pertsonalak lortzen ari bada, legez behartuta dago horiek aitortzera, eta horretarako, "enpresaburu" gisa alta eman beharra dauka. Emakumeaz gain, baldintza berberetan beste pertsona bat baldin badago, hots, nekazaria bada; arau berberaren arabera, pertsona horrek ere alta eman beharko luke enpresaburu gisa, eta orduan, ustiategi batean bi pertsona baldin badaude lanean, zentzu handiagoa dauka bi pertsona horiek sozietatea osatzea ustiategiaren administrazioa eta gestioa errazteko, ez baitauka zentzurik bi pertsona egotea fakturatzeko ustiategi berean.

... BAINA, ZER GERTATZEN DA USTIATEGIAK BI TITULAR EDUKI ARREN, EZ BADU EMATEN BI TITULAR HORIEK GIZARTE-SEGURANTZAN EGOTEKO BESTE?

Ez dugu ahaztu behar sozietate zibila, Ondasunen Erkidegoa edo TPE bat osatu behar diren ondorioz bi pertsonak egon behar dutela nekazaritzako gizarte-segurantzaren, eta baliteke hori ez interesatzea. Horregatik, gure ustez, TPE, SZ edo OE bat osatu "beharra" sortu behar dela bi pertsonak nekazariak direnean.

Eta gure ustez eskubide horrek ez luke mugatuta egon behar soilik 7.1 artikuluan definitzen diren emakume nekazariengana; aitzitik, titularkide emakume bat duen ustiategi guztietan aplikatu beharko litzateke, gerta daitekeelako zenbait emakume egotea etekinak frogatu ezin dituztenak baina lortu nahi dituztenak, eta orain arte ezin izan dute.

Badirudi arazo historikoa izan dela emakumea ez dela ustiategiaren titular izan edo, izan bada ere, paperean soilik izan dela, eta horregatik, gure ustez, zuzena da emakume nekazariak eskubidea izatea erregistroko titulartasuna lortzeko, eta hortik aurrera, erregistroko bi titular baldin badaude, SZ, OE edo TPE osatzera behartzea etekinak egiaztatu behar izan gabe; hartara, emakumeak erregistroko titulartasuna lortuta duenez, nola kudeatu eta administratu erabaki dezakeelako.

Gerta litezkeen kasuak:

1. Emakume nekazaria 7.1 artikuluan definitzen den bezala ulertzen badugu, eta lortutako errenta zentzu hertsian hartzen badugu, hau da, bere lanagatik modu pertsonalean:

- Emakumeak etekinak aitortzen baditu ez luke arazorik izango erregistroko titulartasuna ez TPE lortzeko.

- Emakumeak etekinik aitortzen ez badu ezkontideak (gizonak) aitortzen dituelako guztiak, ezkontza-erregimena zeinahi dela ere emakumeak ezin izango luke TPE lortu.

- Emakume nekazaria 7.1 artikuluan definitzen den bezala ulertzen badugu, eta lortutako errenta zentzu zabalean hartzen badugu:
- Emakumeak etekinak aitortzen baditu ez luke arazorik izango erregistroko titulartasuna ez TPE lortzeko.
- Emakumeak etekinak aitortzen ez baditu ezkontideak (gizonak) aitortzen dituelako guztiak, kon-tuan hartu beharko litzateke ezkontuta egon edo izateko bikotea izanik, zer ondasun-erregimeni lotuta dauden.
- Irabazpidezko erregimena bada, gizonak aitortzen baditu ere, lanaren ondoriozko ondasuna denez, irabazpidezkoa da eta, beraz, erdia emakumeari egozten zaio. Kasu horretan, emakumeak erregistroko titulartasuna eta TPE lortu ahal izango litzuzke.
- Ondasunen foru-komunikazioa bada, gizonak aitortzen baditu ere, lanaren ondoriozko ondasuna denez, irabazpidezkoa da eta, beraz, erdia emakumeari egozten zaio. Kasu horretan, emakumeak erregistroko titulartasuna eta TPE lortu ahal izango litzuzke.
- Ondasunen banaketa bada, printzipioz, gizonaren ondasun pribatiboa da berak aitortzen duelako, eta berak egindako lanaren ondorioz dela ulertzen delako; beraz, kasu horretan, emakumeak ezin izango luke ez erregistroko titulartasuna ez TPE lortu.

... **ORDUAN, AZKENEKO KASUKO EMAKUMEEK, NOLA LORTU AHAL IZANGO LUKETE TITULARTASUNA?**

Estatutuaren arabera, oso konplexua izango litzateke ezin izango lukelako etekinak nola lortu dituen egiaztatu, batez ere, juridikoki bereak ez direlako. Ondasunen banaketaren kasuan, argi dago, seguru aski senarrak ez duela inolako interesik edukiko emaztea titularkide agertzeko, eta baieztapen honen aieru hutsa edo oso baieztapen ausarta irudi dezakeen arren, ez dago errealitate sozialetik oso urrun, bestela, ez litzateke Emakume Nekazarien Estatutua onartzeko beharrik egongo.

Orduan, aurretik aipatu dugun bezala, "konpentsazio-pentsioa" mekanismoak zabaltzen duen bidea erabili ahal izango litzateke, hau da, lana egiazta-tzeko frogak erakustea, hala nola:

- **Agiriak:** merkatu-tasen ordainketa, ezkontidearen errenta-aitorpenak (batez ere gizona beste lan batean beste inorentzat lanean aritu denean), gizarte-segurantzako kotizazioak.
- **Testigantzak:** nekazaritza-saileko funtzionarioak, bezeroak, auzokoak, senitartekoak.



Oro har, gure ustez, Erregistro Titulartasuna eta TPE lortzeko aukerak ez ditu potentzialki titulartasunak lortu beharko litzuzketen emakume guztiak barnean hartzen, eta horiek lortze ko mekanismoen garapena faltako litzateke.

Titulartasun Partekatuko Entitatearen eskakizunak

Aipatu dugu lehen zein diren 35/2011 Legeak ezar-tzen dituen betekizunak, honako hauek:

- Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar dute.
- Nekazaritzan jardutea eta bertan zuzenean eta norberak lan egitea, uztailearen 4ko 19/1995 Le-gean zehazten denaren arabera.
- Ustiatzea dagoen landa-eremu berean bizitzea.

Emakume Nekazarien Estatutuak, 11. artikuluan honako hau jasotzen du:

1. *Estatutu honen ondorioetarako, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiatzeak hauek dira: nekazaritza-ustiatzea batera kudeatze-ko, emakume baten eta ezkontidearen edo antzoko afektibotasun-harreman batez lotutako pertsonaren artean eratzen direnak.*

Estatutuan, jakina, bai aipatzen dira gutxienez emakume bat dagoen ustiatzeak, eta horrek barnean hartuko litzuzke bi emakumek osatutako bikote homosexualak.

2. *Nekazaritza-ustiatzea titulartasun partekatuaren arabidean duten titularrek nekazaritza-ustiatzearen titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean edo hura ordeztzen duen arauan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.*

11.2 atalari dagokionez, honako hau azaldu behar da: ez dugu nahastu behar eta azaldu egin behar da ustiatze baten administrazio titularkidetasunorok ez duela egon behar Titulartasun Partekatuaren betekizunen pean, litekeena baita, ustiatze txiki-tan, titularkidetasuna egon arren, gizarte-segurantzaren bi afiliatori eusteko behar besteko etekinik ez lortzea.

Estatutuak onartzen dituen beste eskubide edo abantaila batzuk

Emakume nekazarien estatutuak TPEen beste eskubide edo abantaila batzuk arautzen ditu:

Laguntzak eta diru-laguntzak

Laguntzen eta diru-laguntzen araudian emakume nekazarien titulartasuna lehenetsiko da, erkidego-ko araudiek hori debekatzen ez badute. Lehenestea honela gauzatuko da:

- *Aurkeztutako eskaerak erkatu egiten diren prozedu-retarako balioespen-irizpideetan, puntuazio bat finkatuko da, lor daitekeen gehieneko kopuruan gutxienez % 15 izango dena, titulartasun mota hauek dituzten ustiatzeentzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dau-*

den partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

- *Diru-laguntzaren xedea jarduera bat egite hutsa denean, zenbateko bat finkatuko da, orokorrean ezarritakoa baino % 10-20 handiagoa, titulartasun mota hauek dituzten ustiatzeentzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.*

Zehazten ez den arren, ulertzen dugu "titulartasun partekatua" aipatzen duenean, gutxienez emakume bat duten horietaz ari dela, bestela bikote homosexual zein heterosexualak hartuko litzuzke.

Gizarte Segurantzako afiliatioari dagokionez

Emakumea nekazaritza sektorean ez onartzearen eta nekazaritza eta abere ustiatzearen titular ez izanaren ondorioetako bat, norberaren konturako langile gisa nekazaritzako gizarte segurantzaren alta ematerik eduki ez izana da.

Hala ere, emakume horiek urteak eta urteak eman dituzte lanean, eta ez dute inolako babes sozialik izan, eta seguru aski, ez dute erretiro-pentsiorik ere izango.

Estatutuak honako artikulua honetan jasotzen du:

17. artikulua. Emakumeak Gizarte Segurantzaren afiliatza bultzatzea.

- *Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek laguntza-programak finkatuko dituzte lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeak nekazarien Gizarte Segurantzaren afiliatzeak.*

- *Programa horiek aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan dauden nekazaritza-ustiatzearen titularrak nahiz titularkideak diren emakumeei, baldin eta norberaren konturako langileen edo autonomoen arabide berezian sartzen badira, Gizarte Segurantzako nekazaritzako norberaren konturako langileen sistema bereziaren bitartez, edo une jakin batean dagokien arabidean: bereziki, Gizarte Segurantzaren sartzeko erretiro-pentsioa jasotzeko eskubiderik ez diela sortuko kalkulatzeko denean.*

Neurri hori oso neurri erabilgarria da eta benetan lagunduko du emakumeak sektoreak egiten duen lana balioesten.

Emakume asko erretiroa hartzetik gertu egongo dira eta ez dute ez eta gutxieneko kotizazio-urterik beteta izango pentsioa lortzeko, beraz, neurri hori oso lagungarria izango da.

Ez dakigu laguntza horrek gehieneko mugarik baduen edo horretarako aurrekonturik badagoen.

Kuoten, nekazaritzako zoru-funtsaren eta bestelako neurrien esleipena

• Kuota-esleipenez, nekazaritza-lurren funtsetako lursailak esleitzeaz, lantzeko administrazio-baimenaz eta antzeko ez erabakiak hartzean, lehentasuna emango zaie titulartasun mota hauek dituzten ustategien eskaerei: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehuneko gutxienez % 50 diren pertsona juridikoa-rena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

Hau da, lehentasuna edukiko dute emakume bat duten ustategiek kuotak, lurak eta landaketarako baimenak esleitzerakoan.

Emakumeen ordezkartza nekazaritzako sektorean

Estatutuak ordezkartza orekatua eskatzen du erakunde publikoetan, ebaluazio-mahaietan eta laguntza eta diru-laguntzei buruzko batzordeetan eta sektore publikoak parte hartzen duen erakundeetako zuzendaritza organoetan.

Emakumeen presentzia orekatua bultzatzen du erakunde profesioaletan, enpresa eta sindikatuen elkarteetan, eta esaten da ez zaiola laguntzarik emango hori betetzen ez dutenei, justifikatuta baldin badago izan ezik. Eta justifikatuta egongo da emakume bazkideen kopurua presentzia orekatua izateko ordezkartza organoetan izan beharko luketenaren bikoitza baino txikiagoa denean.

Estatutuak, laguntzak eta diru-laguntzak arautzeko araudietan dio lehenetsi egingo dela emakumeen kontratazioa norgehiagoka prozedura bidezkoa denean.

• Halakoetan, eta langileen % 40 gutxienez emakumeak dituzten enpresetarako, balorazio-irizpideen artean puntuazio bat ezarriko da horretarako, lor daitekeen gehienekoaren % 15 gutxienez ordezkartza duena.

• Eskaeren konparaziorik ez hainbanaketarik aurreikusten ez den nekazaritza gaitan eskumena duten euskal administrazioetako laguntzak eta diru-laguntzak arautzeko araudietan, balorazio-irizpideen artean ezarriko da eskaera egiten duten enpresetan % 40 gutxienez, emakumeak izatea.



Aurreko ataletan aurreikusten diren lehenespenak ez dira aplikatuko zuzendaritza organoetan emakumeek ehuneko orekatuan parte hartzen ez duten enpresetan.

• Nekazaritza gaitan eskumena duten euskal administrazioek sinatutako hitzarmenetako klausuletan konpromiso bat jasoko da emakumeen parte-hartzea sustatzeko, bai sinatzen duten erakundeen jardueraren eremuan bai haien erabakitzeko-organoen.

— ESKUBIDE SOZIALAK

Uztartze erantzun kidea

Aisialdirako, denbora librerako eta atsedenerako eskubidea onartzen du, eta honako hau bermatuko da:

• Haurdunaldian, edoskitzaroan edo seme-alabak zaintzeko nekazaritzako jardueraren etetean ordezkapenak egitea; lurraldean dauden ordezkartze-zerbitzu edo gizarte-zerbitzuetara iristeko eskubidea izatea.

• Ordezkapenak aldi baterako ezgaitasun-kasuetan, oporretan. Xede horretarako, lehenesteko irizpideen artean ezarriko da emakumeak izatea ustategien titularrak.

• Nekazaritzako jarduerari eustea ahalbidetzen duten ordezkapen-zerbitzuak, bereziki mendeko pertsonak zaintzen dituzten kasuan.

• Informazio, sentsibilizazio eta zabalkunderako kanpainak egingo dira nekazaritzako erantzun kidea bultzatzeko baliabideak ezagutarazteko, eta neurriak eta programak jarriko dira abian gizon nekazarietako etxeko zereginetan eta mendeko pertsonen zaintzan ere zereginak euren gain har ditzaten.

Laneko osasuna

Estatutuaren arabera, emakume nekazarietako eskubidea dute euren laneko osasuna babes diezaieten eta faktore bereizgarriak ezarriko dira nekazaritzaren alorrean emakumeen eta gizonen osasunaren artean; hautemateko eta kontrolatzeko jarduerak bultzatuko dira; bai eta emakume nekazarien artean laneko arriskuen prebentzioa benetan aplikatzeko neurriak ere.

Sexu bakoitzerako arrisku-faktore espezifikoak zein emakumeentzat nahiz gizonentzat arrisku bera duten faktoreen eragin desberdina hartuko dira kontuan.

Nekazaritzako sektoreko segurtasun eta laneko osasunerako politiketan, estrategietan eta planetan emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, iguripen eta beharrezko desberdinak hartuko dira kontuan, eta osasun-maila parekoa lortzeko bideratuta dauden helburuak, xedeak eta jarduerak txertatuko dira.

Edozein kasutan, honako hau bete beharko da:

• Emakume nekazarien artean laneko arriskuen prebentzioarako araudia aplikatzen dela zaintzea eta kontrolatzea,

• Lanpostuen, tresnen, ekipoen, lan-prozesuen, arroparen eta oinetakoen diseinuan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartuko direla bultzatzea.

• Arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten kontsulta eta erabakitzeko organoetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izango dela bermatzea.

• Informazio, komunikazio eta formazio planetan gizonentzat eta emakumeentzat komunak diren arriskuei eta arrisku espezifikoari buruzko informazioa emateko helburuak eta jarduerak txertatzea.

• Osasuna zaintzeko zerbitzuen jardueraren guztietan genero-ikuspegia txertatuko dela bermatzea.

Emakumeen kontrako indarkeriaren eta jazarpen sexistaren aurreko babesa

Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko informazio eta arreta-baliabideak edukitzeko eskubidea onartzen da; euskal administrazioek sektoreko inguruabar bereziak hartuko dituzte kontuan, eta eskubide hori gauzatuko dela bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Emakumeen kontrako indarkeria pairatu duten emakume nekazarietako euren lana egiten jarraitzeko eskubidea dute; administrazio publikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte eskubide hori gauzatzeko dela bermatzeko.

Euskal administrazioek bermatu egin behar dute nekazaritzako sektorean diharduten eta jazarpen sexista edo sexu-jazarpenaren biktima diren emakumeek kalitateko informazio eta arreta baliabideak dituztela eskura. Dena dela, sexu-jazarpen edo jazarpen-sexistaren biktima diren emakume nekazarietako arreta hori konfidentzialtasun bermearekin jasotzeko bideak ezarri beharko dira.

Formaziorako eskubidea

Estatutuan onartu egiten da interesen eta beharrezkoen arabera formazio egokia jasotzeko eskubidea, bai eta profesionalizazioarekin eta informaziorako teknologia berriekin, ikerketarekin, garapenarekin eta nekazaritzako formazio teknologikoarekin lotutakoa ere.

Programa zehatzak jarriko dira abian, eta emakumeek lehentasuna izango dute nekazaritzako formazio eta gaitasunerako ikastaro eta programetan; emakume eta gizonak berdintasunean oinarritutako formazioa jasotzea bultzatuko da.

Besteak beste, honako neurri hauek hartuko dira:

- Nekazaritzako formazioa ematen duten irakasleentzako baterako hezkuntzako formazioa bultzatuko dute.
- Baterako hezkuntza txertatuko dute nekazaritza alorreko formazioko planetako xedeetan eta ebaluazio-irizpideetan.
- Genero-ikuspegian oinarrituta aztertuko dituzte nekazaritzako formazioan erabilitako materialak; horrela, material gomendagarriena zein den aukeratu ahal izango da eta, kasu bada, egokiak ez direnak identifikatu eta aldaketak proposatuko dira.
- Nekazaritzako gaitasun-programetan berdintasunari buruzko moduluak txertatuko dituzte.

Emakume nekazariak aintzat hartzea eta ikusaraztea

Estatutuak dio emakumeak ikusarazteko eta aintzat hartzeko moduak bultzatuko direla, azterlan, informazio-kanpaina, sari edo beharrezkotzat jo daitezkeen beste edozein bide erabilia.

Azterlanak, ikerketak eta estatistikak egingo dira, eta egiten diren estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketetan sexuaren aldagaia jasoko da sistematikoki.

Nekazaritzaren esparruan emakumeek eta gizonek dituzten baldintza eta beharrian desberdinak aztertzeko azterketak eta ikerketak egitea bultzatuko da, eta ez zaie diru-laguntzarik, ez laguntzarik ez bestelako laguntza-neurririk eskainiko genero-ikuspegia txertatzen ez duten azterlan eta ikerlanei.

Segimendu Batzordea eratu da.

► Azterketa baserritarra eta feminista

Estatutuaren existentzia hutsa dagoeneko oso ideia positiboa, beharrezkoa eta interesgarria da. Batez ere horrek esan nahi duelako akordioa egon dela eragileen artean, eta ikusi dela hor hutsune bat zegoela eta bete egin behar zela. Gainera, urte luzetako borroka izan da, erreibindikazio historikoa.

EHNEko emakume taldea aspalditik aritu da Emakume Nekazarien Estatutu baten beharra aldarrikatzen. 2008an Eusko Legebiltzarrean onartuko zen 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politika, emaitzatat izan zuen prozesu osoan zehar batez ere. Emakume baserritarrek euren lana sozialki, ekonomikoki eta juridikoki errekonozitu zedin egin dute borroka. Estatutu honek besteak beste, Gizarte Segurantzaren altan emateko trabak kentzen, gizonezkoen eskubide profesional berdinak izaten, babes legala izaten, jabegoa ekuratzeko aukera



izaten, gizonarekin elkarrekin sortzea ahalbidetzen, parte hartze soziala errazteko azpiegiturak ahalbidetzen,... lagunduko zela uste zutelako defendatu dute. Eta era berean gizonari kontzientzia hartzeko eta erantzunkidetasuna eskatzeko sentsibilizazio eta formazioa kanpainak martxan jarriko zituelako, adibidez zaintza lanak partekatzearen garrantziaz ohartarazteko.

Oro har, bere iritziz asmo adierazpen ona da, nahiko osatua eta Estatutu idazteko zioen azalpenetik bertatik oso eremu interesgarria definitzen duena.

BENETAKO APLIKAZIOARI BURUZ:

Lege bat da, oso generikoa da, baina artikuluz artikuluz oso gauza interesgarriak aipatzen ditu. Orain garatu egin behar da, eta baliabideak erabili.

- Bultzatu eta zabaldu egin behar da... onuradun potentzialen artean ezagutzera eman. Benetako proiektutan, neurri zehatzetan eta baliabide ekonomikoetan gauzatu.
- Oso testu interesgarria da, eta gauzatu gero eta ekonomikoki lagunduz gero, nekazaritza-politikan genero-ikuspegia txerta dezake eta oso indartsua izatera irits daiteke. Gaur egunean, ikusten ari gara politika ezberdinetan, nekazal alorreko dirulaguntzetan, formazioetan, nekazal erakundee-tako ordezkari organoetan, nekazal alorreko mahai ezberdinetan; esaterako PEPACaren jarraipen batzordean,... Estatutuan jasotzen diren aukera berdintasuna bultzatzeko neurri positiboak eta ordezkariaren gaia betetzeko ahaleginak egiten direla, emakumeentzako kupo batzuk gordeaz edo dirulaguntzetan % gehigarri bat aplikatuaz besteak beste.

Honek, emakumei bidea irekitzen lagun diezaikeela uka ezina den moduan, bere horretan berarekin dakartzen arriskuez ere ohartarazi beharra dago. Izan ere, emakumeek, galdetuak izan direnean euren aipatu duten moduan, berriz ere emakumearen gain bakarrik jartzen dela ardura sentitzen dute. Aukera berdintasunetik abiatuko bagina bezala eta historikoki jasandako eta egun ere badagoen diskriminazioak izandako eragina kontuan hartu gabe. Parte hartzeko aukera zabaltzen dela baina emakumeek ez dutela parte hartu nahi moduko argudioak entzuteraino sarritan.

Lanketa integral baten faltan, benetan genero ikuspegia txertatu ezean eta emakumeen beharrak kontuan hartu ezean politikak egiterakoan, erantzunkidetasun bat eskatu ezean gizonezko ere, zail da erroko aldaketari bide ematen diskriminazio positiboko eta kupo batzuen neurriekin bakarrik.

Estatutuak emakume baserriarren bizimoduan eragin ditzakeen aldaketei dagokienez, asko dira, baina asko dira mahai gainean dauden kontraesanak ere:

- Zerbitzu eta enplegu-politikak falta direla onartzen da; konpondu beharreko diskriminazio egoerak badirela, egoera horiek ikusarazten ditu.
- Laguntzetan diskriminazio positiboa aipatzen du eta % gehigarri bat aplikatzen ari da orokorrean laguntzetan emakumezkoa izateagatik edo emakumezko bat egoteagatik elkarteetan.
- Titulartasun partekatua bultzatzen du testuan, nahiz eta gero beronen aplikaziorako ez dagoen nahikoa mekanismo artikulatuta. Administrazioetako langileek askotan ez dute jakiten ondo nola egin behar den prozedimentua eta antzematen da ez dutela formazio egoki bat jaso euren lana egoki egin ahal izateko eta emakume baserriarrek ondo artatu ahal izateko kasu honetan.

Horrez gain, Titulartasun partekatuaren legea 2011. urtean Estatu mailan onartutako legea da eta kasuistika jakin bateko errealitateari erantzuna eman nahian sortua izan zen. Batez ere, ustiategi familiarrei begira, senar-emazteak biek baserrian lan egin eta emakumea "laguntza familiar" figuraren azpian ikustezin egiten zuen errealitateari buelta emateko tresna izan nahi zuen. Legea onartua izan zenerako ordea, emakumeak dagoeneko beste irtenbide batzuk bilatzen hasiak ziren. Burokratikoki errezagoak diren irtenbideak eta onura aldetik berdintsuak direnak, esaterako, Elkarrekin Zibilak edo Ondasun Komunitateak.

Aldi berean, aipatzekoa da baita ere, 17/2008 Legeak, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikak, II kapituluko 76. artikuluan jasotzen duela titulartasun fisikoko ustiategi erregistratu batean zuzenean eta pertsonalki bi ezkonkideek egiten badute lan, edo izatezko bikoteko bi kideek, ustiategi horren titulartasunak titulartasun partekatua irudi juridikoa izango duela. Alegia, ulertzen da, ofizioz izango dela titulartasun partekatuko ustiatagia. Artikulu hau ordea, baliogabetuta geratzen da 8/2015 Legea, Emakume Nekazarien Estatutua onartu ostean. Kasu honetan, Estutuak emakumeek titulartasuna lortzeko duten eskubidea aitortzen du eta ustiategian lan egiten duen emakume nekazariak legezko figura bati lotua egon behar duela dio. Baina ez du aipatzen zuzenean titulartasun partekatua figura izango duenik ofizioz.

Horrez gain, titulartasun partekatuaren figurak ez ditu kontuan hartzen ezkontuta edo izatezko bikotetan ez dauden emakumeak eta beraz, egungo errealitatearen hein handi bat ez du kontuan hartzen.

- Gizarte-segurantzak ez da Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa, baina horretan ere aldaketa batzuk aipatzen dira.

- Ordezkapen politikoari dagokionez, paritate irizpideak betetzen ez dituzten erakunde, elkarte, administrazio eta abarri dirulaguntzak kentzea proposatzen dute.

Legeak "emakume baserriarren autonomia eta gizarte-posizioa, politikoa eta ekonomikoa sustatzea" aipatzen du eta egun nekazal alorreko erakundeetan erabakitze organoen % 40a emakumezkoek bete behar dute. Aurretik aipatu den moduan, neurri hau dirulaguntza bati bakarrik lotzeak berekin dakarren arriskuak ohartu beharra dago. Jarraipen bat egitea faltan botatzen da aztertzeko benetan harremanak berdinetik berdina egiten diren eta benetako parte hartze efektibo bat izateko aukera ahalbidetzen zaien zerrenda hauetan izena jartzen duten emakumei eta horretarako beharrezko baliabideak eskuagarri dituzten.

- Uztartzea ere aipatzen da; gaur egunera arte oso ordezkapen-zerbitzu gutxi daude, eta kasurik gehienetan, emakumeek ez dituzte eskatzen, eskeintzen diren prestazioek askotan ez dutelako errazten benetan ordezkapen hori egitea; motz geratzen dira, edo adibidez autonomoen artekoa izan behar du eta ez dute kontenplatu norbait

kontratatu ahal izatea ordezkapen hori egiteko... Puntu horretan, garrantzitsua da gizonen zuzenduriko informazio lana, zaintzan parte har dezaten. Baina ez da ezer egiten ari kontzientziario hori lantzeko.

- Osasun eta laneko arriskuen prebentzioari buruz hitz egitean oso garrantzitsua da legeak proposatzen duen genero-ikuspegia. Horrek zer nekazaritza-eredu bultzatzen ari garen eztabaidatzera eramanez beharko gintuzke. Legeak ez du jasotzen emakumeak gaixorazten dituen nekazaritza ereduak denik.

- Genero indarkeriaren prebentzioa ere aipatzen da, baina hori horrela izan dadin, baliabideak jarri behar dira. Beharrezkoa da, baserri guneetara iristea prebentzio kanpaina hauek, batez ere isolatuen daudenetara eta gizarteratze gutxien dutenetara. Isolamenduak arazo gehigarriak ekar baititzake eta laguntza eskatzeko bideak gutxitu.

- Formazioa aipatzen da, emakumeen interes eta beharrezko erantzun dien formazioa, berdintasunean oinarritua, ahalduz... baina hori gauzatzeko dirua eta borondatea falta dira.

LEGEAREN PUNTURIK AHULENAK...

Asmoa ona da, baina orain legea puntu puntu hartu behar da eta plan eta programetan garatu behar da. Baliabideak jarri behar dira horretarako, bai ekonomikoak eta baita pertsonalak ere.

Nekazaritza eredu baten aldeko apustu argia ere falta zaio; orain arte ezarrita dagoen eredu emakumeen kalterako izan da: osasuna, uztartzeko eragozpenak, lan zama, pobrezia, porrota... Emakume baserriarrentzat zer nekazaritza eredu nahi dugun eztabaidatu behar dugu.

Emakume etorkinei buruz hitz egitea ere falta zaio; orokorrean oso ezkatututa egoten den errealitatea da, eta are gehiago baserrietan. Nola ikusarazi, nola bermatu haien eskubideak... Ekin egin behar zaio gai horri, ez baitakigu zer ari den gertatzen. Eta demografiaren eta transmisioaren ikuspuntutik oso garrantzitsua da, eta izango da. Ekin egin behar zaio, eta lana eta dirua eskaini.





ESTATUTUA GARATZEKO URRATS PRAKTIKOAK

- Informazioa zabaltzea, emakume baseritarrek ez daukate lege honen berririk. Bizkaiko Diputazioarentzako Siadecok 2022 egindako ikerketa lan baten arabera Bizkaian lehen sektorean lanean ari diren emakumeen %69 ak ez du inoiz Estatutu honen berri izan. Beraz, nabarmena da, oraindik ere beharrezkoak direla, sektoreko emakumeei zuzendutako kanpainak egitea. Kasu bakoitzean onuragarriak izan daitezkeen alorretan aholkularitza pertsonalizatua emanaz.
- Administrazio langile teknikoentzako prestakuntza-prozesuak behar dira, hauek emakume baseritarrei laguntzeko eta berauek artatzeko gaitasun hobea izan dezaten.
- Gizonei zuzendutako informazio, sentsibilizazio eta formazio lana ere nahitaezkoa da, zaintzan eta erantzunkizunean parte har dezaten.
- Jarraipen-mahaia, Estatutua lege eta arau zehatzetan garatzen hasteko lehenengo urratsa, hura onartu eta bi urtera deitu da lehen aldiz eta gerotik urtean behin egiten du bilera bat, legez arautua dagoen gutxienezkoa. Lau azpi talde sortu ziren orain urte batzuk jarraipen mahaiaren baitan, datuak eguneratzeko bat, komunikaziokoa bestea, formaziokoa hirugarrena eta juridikoa azkena. Azpi talde hauek ere funtzionamenturik gabe edo oso apalarekin daude. Urtean txosten bat argitaratu behar du legez eta ez dago bermatua urteroko txosten hau. . Adi egon behar dugu, hemendik aurrera zer urrats ematen diren ikusteko, kontuan

hartu behar baita 2025ean 10 urte beteko direla Eusko Legebiltzarrean aho batez onartua izan zenetik.

- Genero-ikuspegia nekazaritzako legeen alderdi guztietan txertatzen hasi behar dugu, agian astiro egin behar da, baina hasi egin behar da. Erabaki politiko eta ekonomikoak hartu behar dira, eta Estatutuaren puntu guztietarako aurrekontu-partidak erabili behar dira.
- Proposamenak beste estatutu batzuetatik atera dira, baserritartzea falta zaio, emakume nekazarien arteko aldeak zehatzago aztertu behar dira, nekazari-kolorea eman behar zaio. Eta hori egin ahal izango da edukiz jantzi ondoren. Estatutua bizkarrezurra da, eta garatu ahala osatuko dugu.
- Ondorio nagusia da tresna ona dela, baina kaxoi batean gordeta dagoela; hautsa astindu eta garatu egin behar dugu, gure arazo eta zalantza askoren konponbidea izan daiteke. Baina garatzen ez badugu, ez du ezertarako balio. Baliabideak jarri behar dira horretarako, bai pertsonalak bai eta ekonomikoak ere.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAJLA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



ERAZUNE
NEKAZAREN
ESTRATEGIA

ESTADUTO
DE LAS MUJERES
AGRICULTORAS

